

S E C C I O N A M E N A .

M A I Z T E R B A T E N A T E R A L D I A K .

Nagusi batek jaiera aundia
Zuen nekazaritzara,
Eta erruki egiazkoa
bere bordarietara:
Batean irten zuen echetik
Bazterrak ikusitzera
Eta maizterrak arrenkurarik
Ote zuten jakitera.

Oraindik etzan asko ibili
Bere lagun on batekin,
Eta ona non ikusten duen
Pena eta tristurakin
Arto-gariak bear zutela
Izan gaitzen bat berekin,
Bada josiak zegozten oso
Momorro chikichoakin.

Arto landare bati begira
Arriturikan zegoen,
Gaitzete ura ikasi naian
Nondikan sortu ote sen:
¿Zer esperanza izango dute
Bordari gaisoak aurtan,
—Zion—berekin zijoanari,
Ikusirik uzta galtzen?

Itzbide ontan zijoaztela
Arkitu zuten lanean
Nekazari bat, jaun onek zuen
Bordaren aldamenear:
Askotan nola mintza oi ziran
Soro-zelaien gañean,
Miñez zegoen landarechoa
Paratu zion aurrean,

Esanaz:—¿zenbat etsai ez ote
Dituzte nekazariak!
—Ala da, jauna; asko dirade
Baserritarren etsaiak;
Baña ez dakit asma lezaken
Berorren jakinduriak,
Momorrorikan gaiztoena zeñ
Ote duen bordariak.

Aen ustean ari zalako
Langille ura benetan,
Biek aurrez aur kontuz berari
Begira gelditu ziran,
Jakin naiean, egiaz zeñ ar
Edo arbiska ote zan
Kaltetsuena ogizelai ta
Artosoro ederretan.

Nola ezpaita mutill motela
Emengo baserritarra,
Igarri zion ariñ iretsi
Zutela pildoratzarra;
Eta erachi zion:—nola nik
Beti izandu dedan charra,
*Momorrorikan gaiztoena da
Nagusia; jaunak, orra.*

Parre-algara iñsur erazi
Zien ateraldi onek,
Ezpaitu errez politagorik
Asmatuko beste batek:
Maiztor ernea pozez zegoen
Ikusirik parrez aek,
Naiz bere baitan pensatu (beintzat
Ziri ederra or ditek.)

Baña ez beza uste dirala
 Nagusi denak berdiñak:
 Ezagututzen ditut prestuak
 Bai eta ere zekenak.
 ¿Nai dit aditu zenbat klasetan
 Litezkean sartu danak?
 —Bai, egiazki;—ona bada emen
 Nere ustean diranak.

«Lendabiziko klasean dauden
 Momorrorik aundienak,
 Dira comentu santu aetan
 Bakardadean daudenak:
 Aek dirade maizterrentzat
 Nagusirik oberenak,
 Zeren baterez ditu poztutzen
 Mundu ontako ondasunak.»

«Bigarrenean daudenak dira
 Ez dakitenak zer duten;
 Arako Marques, Conde ta beste
 Aundimandiak or emen,
 Dabiltzan aek, Paris, Londres ta
 Beste tokitan gastatzen:
 Ez dira oek beren denboran
 Bordarietaz oroitzen.»

«Klase onetan sar litezkean
 Modukuak ere dira,
 Eleiz, Batzarre, Arroztegi ta
 Nagusi zarrak gañera:
 Egin lezake onelakona
 Maizterrak lana gustora,
 Zeren bazterrik onena dauka
 Ezerez baten aldera.»

«Irugarrengo klasean daude
 Beorien gisakoak,
 Eskola aundiren bidez errian
 Buru diraden jaunchoak :
 Nola ez diran maiz ikustera
 Juaten zelai ta soroak,
 Genezakegu esan dirala
 Gaitz gabeko momorroak.»

«Laugarrenean daude, egiaz,
 Nagusirikan charrenak,
 Eta dirade igaz morroi ta.
 Aurten nagusi daudenak:
 Oriek dira momorro chiki
 Orien antza dutenak,
 ¡Erruki ditut orrelakoren
 Mendean bizi diranak!»

«Ez nezake esan, nai izan arren
 Oen alde gauza onik,
 Zeren dagozten orrelakoren
 Maizterrak eziñ bizirik;
 Beñere ez dute pitar piskacho
 Bat egiteko modurik,
 Eta zenbatek ez eta ere
 Urte erdirako artorik.»

«Ona esanik, nagusi jauria,
 Garbi nere iritziak,
 Etzait ajola izandu arren
 Zenbatentzako gaziak:
 Gure aitonak esan oi zuen,
 —Zurá bereko ziriak;
 Zirala gure artetik sortzen
 Diran nagusi guziak.»

CLAUDIO DE OTAEGUI.